

"Ondo bizi naiz, han baino askoz hobeto. Nire azala arras ezberdina izan arren neure burua onartua sentitzen dut".


modu

HERNANIKO besteak

GERMÁN, MOUDU eta JUANJO

Hernaniko ostegunetan, erropaz eta trastez betetako postuetan, Nazio Batuetakoak izan litezkeen sukurtsal anonimo ugari dago. Extremeñoak, andaluziarrak, marocokoak, senegaldarrak, ecuadorkoak, perutarrak, argentinarrak.... Nortasun agiria dute batzuk, beste batzuk kadukatutako pasaporteak, paperik gabe asko, guztiak daude zerbaiten zain.

Beraiek ere iragana, oraina eta etorkizuna dute. Beraiek ere zerbaiten bila dabiltza postuz postu ez ibili arren. Eurengana hurbildu eta hitzegin dezatela eskatu diegu, zertan ari diran, nondik datozen eta zeintzuk diran dituzten helburu eta ilusioak; hori buruz galdetu diegu.





germán

"Amets bat?. Berdintzat har nazatela, onar nazatela.... baina benetako ametsa hara itzultzea, galdutakoak berreskuratzea, nire jendearekin berriro elkartzea, han berriro hastea".

Zeri buruz hitzegin nahi lezake osteguneko merkatuan postuaren kontra aurpegi aspertuaz eta begiak adi dagoen saltzaileak? Zer edo zer esan nahi ote dio erosteko asmorik gabe aurrera eta atzera dabilen horri? Erreparatu al dugu inoiz daramaten erroa? Zer egiten dute han, hain urrutikoak diruditen horiek?

GERMÁN: "Sei urte dira hona iritsi nitzala (hau, leku zabala da, muga zehatzik gabekoa. Bartzelonan hasi eta Gijonen amaitu liteke). Hasieran ilusioa zen nagusi, edozer gauza gerta zitekeen, ate guztiek irikita ziruditen.

Orain berriz itxaropena agortu da, irautea da helburu bakarra eta jakin badakit ez nautela sekula onartuko hemengo baten pare. Nire emaztea hemengoa da, euskalduna, baina berarekin kalean nabilela begi guztiak bekokian sentitzen ditut eta galdera bera antzeman dezaket aho guztietan: zer egiten du honek hemen?, zer egiten du horrek horrekin?.

Bere etxean ere arrotza naiz, halabeharrez onartutakoa, baina argi eta garbi ezberdina. Tokiz kanpo kokatutako irudi bitxia batzutan, jasangaitza gehienetan.

Han utzitakoak gero eta indar gehiago du, denbora pasa ahala bortitzago erakartzen nau. Ni ez naiz hemengoa."

MOUDU: "Orain dela bost urte iritsi nintzan, Marcotik barrena, txalupaz lehendabizi autobusean gero. Andalusia zeharkatu eta hemen bukatu nuen."

Ondo bizi naiz, han baino askoz hobeto. Nire azala arras ezberdina izan arren nire burua onartua sentitzen dut, ez dut inongo arazorik eta hemen bizitzea dut ilusio eta helburu nagusi. Euskalduna naiz."

Postuak jaso, saltzeko ekarritakoa kajetan bildu, kotxeak bete eta hurrengorarte. Bat alde batera abiatu da eta bestea kontrako bidetik. Bihar beste merkaturen batean elkartuko dira, ordu berean leku berean aurrez zita egin gabe.

GERMÁN: "Hangoei esaten diet ondo nagoela, primeran bizi naizela, ez dudala inongo arazorik. Ez ditut kezkatu nahi, baina gero eta eragozpen haundiagoak ditut saltzeko, nekazagoa egiten zait eguneroko lana. Egunak pasa ahala nabarmenagoa da hemen ezingo dudala luze iraun, ezingo dudala nire etorkizuna hemen finkatu."

Nire emaztea turismo ikasten ari da eta hara itzuli nahi dut, han bizimodua aurrera ateratzeko bideak jartzea da orain helburu nagusia. Atzera begiratu ezker ez nuke berriro orduan egin nuena egingo, gogorregia izan da."

MOUDU: "Han zai ditudanei zer esango diet? Emaztea, seme-alabak, familia bertan dut. Han gaizki bizi dira, hura bai dela bizitza gogorra ez hemengoa, hura ez da bizimodua."

Nekazaria nintzen, baina ez nuen zer eginik, ez nuen inongo etorkizunik. Hemen berriz lana dut, ezin dut dudana bizimoduaz kejaratu eta behar izan ezker zalantzarik gabe berriro ere bide berari ekingo nioke. Orain familia ekarri nahi dut, nire egoera (legala) konpondu eta hemen bizi. Zuek ez dakizue hura zer den."

Oihu ozen eta leunez egindako hitzak dira batzuk; marmario goxoa bestea. Milaka kilometrotara daude bata eta bestearen jaioterria eta itsaso zabala dute tartean.

Nortzuk dira mugaz bestaldetik etorritako hauek? Behar al ditugu gure kale bazterretan painelu saltzaileak? Nora dihoaz kotxe zahar horiek goraino bete ondoren? Joaten al dira zinera? Igande arratsaldeak nola botatzen dituzte? Gu zer gara haientzat?

MOUDU: "Merkatutik etxera itzulitakoan dutxatu, afari pasada egin eta lotara. Gurean bizi garen kanpotarren artean hala ere bakarra naiz"





GERMAN EKUADORREN JAIO DA ETA SEI URTE
DARAMATZA ETXETIK KANPO. IRUNDAR NESKA
BATEKIN EZKONDUA EGON ARREN EZ DA
ONARTUA SENTITZEN.



euskaltegira joaten naizena, euskara gaztelania baino hobeto menperatzen dut eta berorretxek ziur aski ate dexente iriki dit."

GERMÁN: "Entzuten diot euskaraz hitzegiten, herri batzutan harridura eta ikusmina pizten du eta horrexegatik bakarrik batzuk zer edo zer erosi ohi diote."

MOUDU: "Nire etxean badute hemengo egoeraren berri, badakite hemen bi hizkuntza erabiltzen dituela jendeak eta gustatuko litzaidake han euskara irakastea."

GERMÁN: "Bai, ziur aski euskarak aukera gehiago eman lezake, batipat zenbait lekutan. Guri berriz behin baino gehiagotan norabaitera iritsitakoan esan digute: "ya están otra vez aquí los marroquíes". Eta nabarmena da hitz horien esanahia gu hangoak ez bagara ere."

MOUDU: "Ez dut sekula horrelako arazorik izan. Inoiz bai, umeeek esaten didate: Hala beltza! Nik erantzun diet, eta zu zuria! Eta zer?. Leku guztietan dituzu pertsona on eta gaiztoak, zuzen jokatzan

ohitutakoak eta min ematen ahaleginduko direnak, baina hori hemen eta munduaren beste puntan gerta liteke."

GERMÁN: "Hemen (Euskal Herrian) udaltzainek, ertzainek, guardia zibilek ez gaituzte gaizki tratatzen. Paperak eskatu arren ez dute gehiegi endredatzen eta ia beti gainbegirada bat eman ondoren modu onez agurtzen gaituzte. Bartzelonan denbora gehiago pasa behar izan nuen etxean kalean baino. Gure azala ezkutatu ezin daitekeen ezaugarria da eta ikusi orduko datoz gugana, paperak behar bezala ez badituzu kanpora zoaz, ez dute inongo begirunerik eta hori mingarria da. Hala ere garai haiek (Bartzelonako hasiera) hobeagoak ziran. Orain konturatu naiz nire gaztaroa alferrik galdu dudala, ez dudala ezer lortu. Batzutan oilaskoak eta arkumeak sabela asetu arren, nire baitan hutsunea haundiegia da, ez diruak, ez bizimodu oparoak ez duelako galdutakoa, bidean utzitakoa ordaintzen. Ez, ez nuke berririo egingo, ez nuke erabaki hura oster hartuko."

MOUDU: "Lagun asko dut, euren etxera behin baino gehiagotan joan izan naiz afaltzera eta



DUELA BOST URTE IRITSI ZEN
SENEGALETIK, MAROKOTIK BARRENA
EGIN ZUEN BIDAIA: TXALUPAZ, ETA
ANDALUZIA ZEHARNITU ETA GERO
EUSKAL HERRIAN BUKATU DU.

zalantzarik gabe ondo bizi naizela esan dezaket. Bost urte hauetan bizitakoak merezi izan du eta zalantzarik gabe berriro ere egingo nuke. Ez naiz inondik inora damutzen hartutako erabakiaz."

GERMÁN: "Amets bat?

Berdintzat har nazatela, onartu nazatela....

Baina benetako ametsa hara itzultzea, galdutakoak berreskuratzea, nire jendearekin berriro elkartzea, han berriro hasia..."

MOUDU: Bakoitzak nahi eta ahal duena egin dezala, hortarako aukera eta askatasuna izatea... haundiena hala ere familia hona ekarri eta hemen bizi ahal izatea. Nahi dudanean hara bueltatu, baina

bizimodua hemen moldatu, azken finean hemengoa bilakatu."

Batek euskaraz egin digu, besteak gaztelaniaz. Batek ez du irrifarrea ahotik kendu, besteak berriz goxotasunez mintzatu arren ezin izan du barruan daraman mingotsa ezkutatu. Biek onartu dute bestearen arrazoia, baina eguneroko bizimoduak juxtu aurkakoa eman dio bata eta besteari. Bihar hala ere biak itzuliko dira Hernanira, bat hemen egin beharrekoa ahalik eta azkarren bukatu eta ahal bezain agudo bere herrira alde egiteko; besteak berriz denbora nahi du, denbora behar du hemengoa konpondu eta hangoak ekartzeko. ♦